

Santamasaak

Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16a / GOIENKARIAren gehigarri berezia



ARRASATEKO
FERIA NAGUSIA
GABONEN
ATARIAN

AZALA: MAITENA ARANA



ZURE OPTIKA

ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87

Eskola Politeknikoaren ondoan

Arrasateko
udalbatzak
Santamas jai
zoriontsuak opa
dizkizue
arrasatear guztioi

Zuen zerbitzura



Arrasateko Udala

KALEINKESTA/ Ferixara gauzak ikustera ala erostera jueten zara?



SONIA ORTUBAI
Langillie



SERAFIN ATXA
Erretiraue



KONTXI RUIZ DE ZARATE
Langillie



JAIONE RUIZ ZABALA
Langillie



IRUNE URAIN
Langillie



VALENTIN ROMERO
Erretiraue

Ferixara gauzak ikustera jueten naz, eta normalien animalixek ikustera. Umiekin jueten gare, eta horixe jueten da ikusi gure izeten daudena. Barazkixei kasu txikiak egiten dutzeu.

Neu ikustera jueten naz, eta andrie jueten da erostera. Neuk dana ikusten dot, ganaue, baserriko jenerue... Aurten anuntziau daue hegaztirik egongo ez dala; ze egingo dutzeu ba!

Bixetara jueten naz, ikustera eta erostera. Adibidez, umiendako artisauek egiten dauen gauzak erosi izen dot. Aurten, baiñe, lan egin biherko dot, eta ezin dot naz ferixara juen.

Gehixenbat ikustera jueten naz, eta egixe da gutxitan erosi izen dotela gauzak. Zelako girue egoten dan, artisauek lan zelan egiten dauen... Holakuek ikustie gustetan jat neuri.

Baserriko ogixe eta holakuek erosten dot. Urterotero jueten naz ferixara, asko gustetan jat-eta bertan egoten dan girue. Santamasak die Mondragueko jairik onenak.

Neu erostera baiñe gehixau ikustera jueten naz ferixara. Barazkixei eta holakuei ez dutzet kasu haundirik egiten, baiñe animalixek asko gustetan jat; baitte artisauek lanien ikustie be.

SANTAMASAK DATUTAN

200

KILO DITU 'BARRIATXO' TXERRIAK

Barriako Javier Otxoaren baseritik ekarriko dute *Barriatxo* txerria. Eguntan 200 kilo ditu txerriak, baina aditzera eman digutenez Santamas egunerako beste 10 kilo inguru har ditzake.

10

SALTOKI ARRASATEKO ARTISAUEK

Arrasateko hamar artisauek saltokiak jarriko dituzte Jokin Zaitegi plazan. Arrasatearrek, besteak beste, bitxigintza, larrugintza, zeramikagintza, tailagintza eta bestelako lanak erakutsiko dituzte.

5

BIDER EUSKAL HERRIKO AIZKOLARI ONENA

Punta-puntako aizkolariek esku hartuko dute martitzeneko desafioan, horien artean Jose Mari Olasagastik. Olasagasti bost bider izan da Euskal Herriko txapeldun, eta munduko txapeldun ere bada.

Arrasate PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
 20500 ARRASATE
 Tel.: 943 71 25 11
 Faxa: 943 71 23 89
 Posta-e: arrasatepress@goiena.com

TESTUAK
 Usoa Agirre
 Jon Berezibar
 Iker Barandiaran
 Xabier Urtzelai
 Ubane Madera

MAKETAZIOA
 Kepa Martelo

PUBLIZITATEA
 Imanol Elortza
 Amaia Mundiñano
 Itsaso Berezibar

ZUZENTZAILEA
 Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
 SS-1124/88

ISSN
 0214-4654

TIRADA
 7.350 ale

Goiena
 Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS
 Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Arrasateko Udala



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia

ALKATEAREN AGURRA/ Inazio Lakuntza

Arrasateko herriari, Santamas jaietan



Azaroaren bukaera aldera egindako lehen elur malutek erakutsi digute, zalantza barik, hurbil ditugula Santamasak eta Olentzero eguna.

Aurten, eguraldiak lagun, Santamasak ospatuko ditugu denon laguntzarekin eta denok parte hartzen dugula, Santamasetako azoka izan dadin, gure azokarik gogokoena eta kutunena.

Gure produktuak izan daitezela, beti bezala, eman dezakegunaren erakusgarri onena.

Horren ostean datoz Olentzero, Urteberri eguna eta Gabonetako gainerako egunak, eta ohiturari jarraituz, ezin dugu galdu eta, familiarekin igaroko ditugu egunok eta gure asmorik onenak agertuko ditugu 2006. urteari begira.

Bizi dugu esperantza egoera berria, eta espero dugu horrek fruitua ematea.

Gure txoko honetatik onena opa dizuegu denoi, arrasatearroi, hemen zaudetenoi, eta gogoan ditugu ere gure artean ez daudenak.

Ondo pasau Santamasetan.

Inazio Lakuntza, Arrasateko alkatea

ETABARRUAN...

SANTAMASAK 2005

Alkatearen agurra	/3
Jaietako eztabaida	/4-5
Egitaraua	/6
Txerria	/7
Barazkiak	/9
Gazta	/10
Ganadua	/13
Hegaztiak	/14
Artisauek	/15
Jakiak	/16
Pintxo lehiaketa	/18
Krosa	/19
Pilota	/22
Eskalada	/24
Trikitixa eskola	/25
Aizkolariek	/26
Tapia eta Leturia	/27
Bertsolariak	/28
Harri-jasotzailea	/31
Horma-irudia	/32
Baserritarren iritzia	/34-35
Fotozaharrak	/36-38



ELKARRIZKETA INES ALDAI UDAL-BOZERAMAILEA

“Udalean beti egon gara gertu jaiak Komisiñuekin antolatzeke”

J. B.

Aurten ere, Komisiñuekin akordiora iristea lortu barik, bakarrik antolatu ditu Santamas jaiak Udalak. Azoka egunerako azken prestaketak egiten buru-belarri aurkitu genuen Ines Aldai, Kultura eta Euskara zinegotzia eta udal-bozeramaile dena.

Iaz ez zenuten akordiora iristerik lortu. Orduetik aurtengo jaietara ze pauso eman dituzue?

Iazko Santamas Komisiñuekin apurketa erabatekoa izan zen, jakina den moduan, ez kultur taldeekin. Ez badaude ados, esku-bide osoa daukate gurekin bat ez etortzeko, noski. Onartu egiten dugu hori, baina, hala ere, kultur taldeek diote aurten ere ez dugula parte hartzeko iritzirik hartzen. Komisiñuekin aurten Maritxu Kajoi ostean bildu gara elkarren jarrera eta asmoen berri izateko. Giro onean eginko batzarra izan zen, baina ez ginen ezertara iritsi. Agurrean ere ez dugu bat egiterik lortu. Guk, Udal

moduan, agurra sinatu gura dugu, antolatzaile guztiona izan behar du-eta. Gai horrek hiru hanka ditu: kultur taldeak eta Komisiñue dira horietatik bi, baina Udala ere bada. Agurra elkarrekin sinatu gura dugu, jakin badakigu-eta Komisiñuen lan boluntario itzela egiten dutela, euren azpimarratu nahi duten moduan. Ez zuten onartu, eta gure aldetik hasi ginen Udalean aurtengo Santamasak antolatzen.

Alde biek jarrera aldatzeko asmorik ez zeneukatela jakinda, zergatik deitu zenuten bilerara?

Ia Komisiñuek jarrera aldatzea posible ba ote zen, elkarren usteen berri izateko. Kultur taldeei dago kienez, badakigu aurten ez dutela egitarauarekin bat egingo.

Agurraren kontuaz gain, jai eredia ere jartzen da auzitan ika-mika horretan guztian.

Guk, zalantzarik gabe, jai herrikoien aldeko apustua egiten dugu, baina zer ulertzen dugu jai herriko moduan? Udala alde batera lagatzea ez da, behintzat, jai herriko moduan ulertzen dudana. Badakigu



Udala ez dela jaien antolakuntzaren parte bakarra, baina esparru asko hartzen dituzte Santamasetan udal langileek, eta antolatzaile gisa agertu behar dute. Komisiñuek eta kultur taldeek egiten duten lana asko baloratzen dugu, baina argi daukagu Santamasetan, bai haiek eta gu, biak garelata parteide. Gu beti agertu

gara elkarrekin antolatzeke prest.

Eta ezin ulertu horiek dira agurraren aferan islatu direnak?

Jendeak ez sinistu arren, agurra idazteko hainbat modu daude, eta guk proposatu egin genizkien: bateratua izan daiteke, nork berea idatzi eta gero adostea, elkarrekin

idatzitako testua... Guk ere sinatu ahal izatea da eskatzen dugun baldintza bakarra. Agurra herriari zuzendutako hitza da, hemen gaudela esatea, herri guztiarendako, gainera. Bestela, ez dut ulertzen jai herrikoak zer izan edo egin daitezkeen. Taldeei erre-konozimendurik kendu barik, baina Udalak zere-

“Baldintza bakarra guk ere sinatu ahal izatea da”

“Ez dut ulertzen Udal bako jai herrikoirik”

“Udalak antolatzaile gisa agertu behar du”

sana duela ere onartu beharra dago. Herriaren parte ere bada Udala antolatzaileaz gain, ezta?

Herria aipatu duzula, nola uste duzu sumatzen duela hori herriak?

Ez garelata gai mahai batean elkarrekin eseri eta akordiora iristeko; hori da, behintzat, nire ustea. Hala ere, inpresioa daukat aurten ez zaiola aurreko urtetako arretarik eskaini; ez, behintzat, hedabideei dagokienez.

NATUR HOUSE

Dietetika eta Elikadura

Gabon zoriotsuak!!!

KONTSULTA DOHAINIK

Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ

Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34

euya

Ondo pasatu Santamasak

**etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku**

Iturriotz 21 Tel.: 943 79 03 84 Faxe: 943 77 20 51 ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

Harategia: Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

**FAMILIA BAKARREKO ETXEEN
ERAIKUNTZA HASIA DA ESKORIATZAN**



Udalatx
Inmobiliaria

Tel.: 943 79 59 99

Faxe: 943 79 92 00

Maalako Errabala, 27 behea-ekz.
ARRASATE

www.udalatx.com
udalatx@udalatx.com

ELKARRIZKETA SANTAMAS KOMISIÑUE

“Diruarekin erraz erosten dira jaiak; guk sormena nahiago dugu”

J.B.

Orain arteko jai ereduari eutsi guran, lan ildo nagusiak batzen zituen hitzarmena aurkeztu zion 2004an Komisiñuek Udalari, kultur taldeekin adostutakoa. Udalak ez zuen onartu, eta desadostasun horien zergatik ez dira Santamasen antolaketan ibili.

Zergatik proposatu zenuen jai ereduari buruzko hitzarmena?

Udalean egon zitezkeen botere aldaketetatik babestu gura genituen Santamas jaiak. Komisiñuek 23 urteko esperientzia dauka jaiak antolatzen, herriko talde eta koadrilekin batera, eta hori islatu gura genuen akordioan. Udalak mila traba ipini zizkigun hasiera-hasieratik.

Traba horietako bat agurra izan da, ezta?

Agurra izan zitezkeen edo beste edozein kontu: kartela, diruaren justifikazioa... Makina bat aitzakia ipini dituzte eta gura dutena eragozpenak jartzea besterik ez da, guk planteatutako jai ereduarekin

apurtzeko. Euren eredia da batzorde batek antolatu, euren lana egin eta eurek ere sinatzea.

Hala ere, Udalak beti hartu izan du parte antolaketan, lehen eta orain.

Bai, egitarau bateratuarekin antolatu izan direnean, jai parte-hartzaileekin, eta ez Udalak ezarritakoarekin, bestela jai estetiko hutsean geratzen da, beste barik. Askok pentsa dezakete udal gobernuan aldaketa egon delako ez dugula eurekin lan egin gura, baina hori ez da horrela, aurreko taldearekin ere kolaboratu genuen-eta. Gure nahi bakarra Santamasak orain arte bezala mantentzea da, eta, noski, Udalaren parte-hartzea garrantzi handikoa ikusten dugu.

Agurraren sinadurak ere hainbat buruhauste eragin ditu, ezta?

Komisiñuen errekonozimendu historikoa da agurra, egindako lan boluntario eta nekezaren isla. Esan beharra dago Udaletik bere garaian eskerrak eman zizkigutela bai guri zein kultur talde guztiei. Agurra, behintzat, ez da baldintza bakarra, gu sinatu barik geratzeko prest ere geun-



den-eta. Gutaz gainera, kultur taldeekiko begirune falta ikaragarria sumatu dugu. Udala hasieratik ibili zaigu eragozpenetan diruaren kontrola dutela-eta, eurek gura dutena ezarri guran. Agurra izan daiteke arazoa edo beste edozein gauza, beti aurkituko dituzte trabak ipintzeko moduak.

Eragozpen horiek edukiei buruzkoak dira?

Inola ere ez. Ez da jaien edukiari buruzko desadostasuna, baizik eta herri ekimenei aurkako eredia ezarri nahi dute. Baldintzak jartzen hasi eta aitzakiak besterik ez dute ipintzen, eta horrekin kultur taldeekin giroa nahastea lortu dute. Argi dagoena da Komisiñuek koordinatzaile lana egin duela, Udalaren kolaborazioarekin. Baina horretaz gain, Komi-

siñuek balio historikoak landu ditu, jai parte-hartzaileak. Ekimen berriak eta sortzaileak ez dira diruarekin erosten, eta badakigu galtzaileak herria eta kultur taldeak direla azkenean, kaltetuek azkenean.

Udalak hori gurata egin duela uste duzue?

Ba, zalantzak sortzen hasi zaizkigu ea kultur taldeekin harremanak kalte-

tu gure ote duten. Eurek nahi dutena Santamasak indartzea bada, egiten dutena ez da modurik onena. Jaiak indartzekotan orain arte ondo egindakoa mantendu eta ekintzak gehitu egin beharko dira, eta ez orain arte egindakoa apurtu eta berriz hasi. Hori da, behintzat, gure ustea. Oso erraza da ekarpen berriak diruarekin egitea, baina guk bestelako eredia proposatzen dugu, ez eskaparate hutsa. Harritzekoa da zelan azken urteetan jaiantzako aurrekontua hazi egin duten baina herriaren parte-hartzea gero eta txikiagoa den, nabariki jaitsi da. Iaz Inesek adierazi zuenez, ez omen zen igarri hori, eta asko mindu gintuen horrek.

Zelan biziko ditu Santamasak Komisiñuek?

Batzordeak jaietan jantzi eta parte hartuko du, zalantzarik gabe orain arte 26 urtean egin dugun moduan. Aurten alde batera geratu gara, eta ez antolatu arren oso adi egongo gara zer gertatzen den aztertzen. Hala ere, jaietan parte hartuko dugu beste edozein herritarrek egingo lukeen moduan, noski.



**OBRA AMAIERAKO GARBIKETAK
GARBITZE ETA MANTENTZE LANAK:
ENPRESAK
BULEGOAK
GARAJEAK
KOMUNITATEAK
ETA ABAR**

Gora Santamasak!

Intxaurtxueta 16 behea ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45

www.hemen-garbiketak.com

EGITARRAUA

JAIETAKO EGITARRAUA

Domeka, 18

10:00 Xake Torneoa. Corazón de Encina elkartearen, Santamas Xake Torneoa.

11:00 Krosa Herriko kaleetan zehar Santamas Krosa 7 eta 14 urte bitartekoendako.

12:30 Krosa Enrike Kabiketa III. Memoriale. Koadrilen arteko Santamas Krosa.

Martitzena, 20

16:00 Abesbatzen Topaketa. Amaia Udal Antzokian Gipuzkoako Erretiratuen Abesbatzen VI. Topaketa.

18:30 Margolanen erakusketa. Harresi aretoan Luis Javier Arrietaren erakusketaren inaugurazioa.

Eguaztena, 21

18:00 Erakusleiho lehiaketa. Erakusleiho lehiaketaren sari banaketa.

19:00 Erraldoi eta Kilikiak. Konpartsaren irteera.

19:00 Santamasetako txerria. Txerriaren aurkezpena.

19:30 Incansables. Txarangaren kalejira.
20:00 eta 23:00 Trikizio. Herriko Plazan.

Eguena, 22

10:00 Erakusketa eta Lehiaketa. Seber Altube plazan, fruta eta barazkiarena.

10:00 Eztia. Herriko Plazan lau ezti mota dastatzeko aukera. 14:00etan ezti sorta zozketatuko dute.

10:00 Ganadu feria. Garibai etorbidean, Debagoieneko Ganadu Feria. Gipuzkoako Kutxak eta Euskadiko Kutxak lagundu dute.

10:30 Artisanauk. Jokin Zaitegi plazan, Artisanuen erakusketa.

11:00 Gazta lehiaketa. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan Gazta Lehiaketa.

11:00 Pintxo lehiaketa. Herriko Plazan II. Pintxo Lehiaketa.

11:30 Kalejira. Hainbat talderen esku-hartzearekin: Iturengo Zanzanzarrak, Incansables txaranga eta Arrasateko trikitalariak.

11:30 Harri-zulatazailak. Zaldibar pilotalekuan Meatzetako harri-zulatazailen erakustaldia.

12:00 Txahal pintxoak. Herriko Plazan txahal pintxoak saltzen hasiko dira.

12:30 Herri kirolak. Zaldibar pilotalekuan, aizkolariak: Olasagasti, Arrospeide, Nazabal, Larretxea, Barberena eta Mugertza. Aizkolari

gazteak: Ugaitz eta Atutxa. Harri-jasotzaileak: Miren Urkiola, Izeta II.a, Aimar, Saralegi eta Ostolaza.

13:00 Sari banaketa. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, barazki, fruta, gazta eta pintxo lehiaketaren sari banaketa.

19:00 Tapia eta Leturia. Herriko Plazan, bikote ezagun horren kontzertua. Horrez gain, Euskal Herriko dantzak irakatsiko dituzte emanaldiak irauten duen bitartean.

22:00 Bertso saioa. Amaia Udal Antzokian, AEDren eskutik. Bertsolariak: Andoni Egaña,

Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Gai-jartzailea: Enaitz Alustiza.

22:00 Pilota partiduak. Uarkape pilotalekuan, profesional mailako punta-puntako partiduak. Lehen txapelketa bost barruan egingo dute: Parro Lazkanoren kontra. Zesta-punta partida, berriz, honako hauek, jokatu dute: Aymar eta Kalzakorta Santi eta Etxanizen kontra. Bi hiruren kontra: Mikel Goñi - Torre II.a vs. Gernika - Torre III.a - Bilbao.



ITURENGO ZANPANZARREK ANTZINAKO USADIOA EKARRIKO DUTE HERRIRA



Urdaiazpikoa osorik hezurra kenduta, prentsatuta eta garbituta taberna, denda eta jatetxeetarako.

Ondo pasatu
Santamas Jaiak!



HARATEGI
ARTISAU-ERARA
ESPEZIALIZATUA

OINETAKOAK ETA POLTSAK

Year

ARRASATE
Biteri Etorbidea 13
Tel.: 943 79 21 71

BERGARA
Barrenkale 9
Tel.: 943 76 22 86

ANGEL INFANTES
LOOKY
KOLLFLEX
MACARÓ
WONDERS
HISPANITAS
PATRICIA
ORIGINAL
CLARKS
24 HRS.
YANKO
N.O.D.
CATS
LODY
SACHA LONDON



1907tik...

Maalako
Errabala, 3
20500 ARRASATE
Telf-Faxa:
943 791262

Casa Ceciaga

Lentzeria
Mertzzeria
Puntuzko osagaiak

Jai zoriontsuak opa dizkizugu!

TXERRIA

Arabatik ekarriko dute aurtengo txerria, 'Barriatxo' izena duena


Berrehun kilo ondo pasatxo izango ditu Santamasetako txerriak; Barriatik ekarriko dute martitzenean

XABIER URTZELAI

Barriako Javier Otxoaren baserrian dago **Barriatxo** txerria. Datorren martitzenean ekarriko dute Arrasatera, urtebetean ederto zainduta egon eta gero. Jabearekin izan gara berbetan.

Urtarrilean jaio zen **Barriatxo** eta Javier Otxoak azaldu digu denbora tarte horretan ezin hobeto zainduta egon dela: "Txerri ona da, kalitate oneko pentsua eman diogu, eta hori igarri egiten da. Forma polita dauka eta gorputz sendoa". Etxerako gura zuten txerri hori, baina haurdun geratzeko hainbat ahalegin egin eta gero, saltzea erabaki dute. Horrelako

txerri batek zenbat balio duen ere galdetu diogu: "Kiloak 1,6 euro inguru balioko du, lehengo 270 pezeta. Baina kontuan hartu behar da zein garesti dagoen pentsua: kiloak 60 zentimotan. Eta ikustekoa da, baita ere, txerri horiek zenbat jaten duten". Dagoeneko 200 kilo inguru pisatuko du **Barriatxo**-k, eta azken aste horretan ere kilo mordoxka hartuko ditu, 10 kilo inguru har ditzake eta astebetean. Javierrek esan digu, gainera, Arrasaten egingo dituen egunetan orain arte jan duen pentsua ematea komeni dela: "Txerriekin kontu handia izan behar da, ez du eta askorik behar gaixotzeko. Horrekin batera, txerria jasotzera etortzen direnei esango diegu noiz egongo den altan, hori ere garrantzitsua da eta".



XABIER URTZELAI

Joan den astean izan ginen Barriatik. Erretratuak ateratzeko Javier Otxoak ukiulitik atera zuen **Barriatxo**.

"Txerriak Arrasaten egingo dituen egunetan pentsu bera ematea komeni da, eta altan noiz egongo den ere esango diegu"

ARRASATEARRREN ARTEAN 150 URTE BAINO GEHIAGO • BERRITUTA

RESUSTA *Karririkiri*




Erdiko Kalea 38 • Tel: 943 79 01 07

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK




- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxe: 943 76 08 04



Zenbaki

AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es

BARAZKI AZOKA

Hogeitaka saltoki barazki eta frutekin

Arrasateko, ibarreko eta urrunagoko baserritarrak etorriko dira Seber Altubera.

UBANE MADERA

Kalabazak, azak, azaloreak, zerbak, sagarrak, makatzak, barazki ekologikoak... ekarriko dituzte hogeitaka baserritar baino gehiagok. Lehiaketa ere egingo dute.

Bedoñako Bidasoro, Errastiko eta Etxabarri baserrikoak, Gesalibarko Euzketa-koak eta Urribarriko Iku-tixo eta Urdaixena baserri-koak izango dira Seber Altu-ben. Ibarretik, berriz, Aramaio, Antzuolako, Aretxabaletako eta Esko-

riatzako produktuak ekarriko dituzte eta apurtxo bat urrunagotik ere etorriko dira; Bizkaitik, esaterako.

Goiz ipiniko dituzte saltokiak, 09:30erako. Eta bazkal ordura arte izango dira Seberren. Baserriko produktuak ekartzeaz gainera, Udalak antolatutako lehiaketan parte hartuko dute baserritarrek. Eguerdi partean esango dituzte irabazleen izenak. Hain zuzen ere, lau baserritar sarituko ditu Udalak: frutarik onenak ekartzen dituzten bi (250 euro emango dizkio lehenengoari eta 200 euro bigarrenari) eta barazki onenak ekartzen dituzten beste baserritar bi (sari berak).



ARRASATE PRESS

Aurten bezala, iaz ere barazki azoka Seberren ipini zuten, Garibain egiten dabiltzan lanen eraginez.

Produktuen kalitatea, kopurua eta aurkezteko modua kontuan hartuko ditu epaimahaiak sariak emateko orduan. Produk-

tuen izenak euskaraz ipintzea ere baloratuko dute.

Horrez gainera, lehiaketan parte hartzen duten herritarrei dirulaguntza

berezia emango die Udalak. Eta lehiaketan parte hartu arren saririk irabazten ez duten baserritarrei, berriz, 50 euroko


laguntza emango die. Era berean, barazki ekologikoak ekartzen dituztenek ere izango dute Udalaren laguntza berezia.

Eguerd partean jakinaraziko dute fruta eta barazki lehiaketako irabazleak zeintzuk izan diren

Lehiaketan parte hartu arren saririk irabazi ez duten baserritarrei laguntza emango die Udalak

JOXAN

bitxitegia eta erloju denda



ESKAINNTZA:
Bitxietan %30eko beherapena
Erlojuetan %20ko beherapena

Aprobetxa ezazu!

“Erloju on bat edonorren eskuetan egon daiteke”

Portaloia 8 • Tel.: 943 79 22 24
ARRASATE

GAZTA LEHIAKETA

Gazta lehiaketan aukeratuko dute Santamasetako alerik onena

Real Sociedad eta Eibar taldeetako jokalaria batzuk egongo dira lehiaketan bisitari berezi moduan.

J. B.

Aurten ere lan zaila izango da epaimahaiarentzat Santamasetako gaztarik onena zein den aukeratzea; Alberto Elortza izango da mahai-burua.

Gaztak ere merezita-ko lekua izango du aurtengo Santamasetan. Makina bat lekutik etorriko dira gure azokan saldu eta, baita ere, urtero moduan, gazta lehiaketan parte hartzera. Epaimahaiak, ziurrenik, aurten ere gaitz izango du gaztarik onena aukeratzea. Euskal gazten mailaren eta kalitate bikainaren lekuko izango dira Santamasak, herrialde ia guztietako ordezkariak izango ditugu eta gurean. Gazta guztiak etxean egindakoak izango dira, baserrikoak bakarrik, eta parte-hartzailearen artaldeko latxa ardi-esne gordinaz egindakoak, gutxienez 800 gramokoak. Horiek dira lehiaketan parte hartzeko baldintzak, eta dagoeneko makina bat baserritarrek eman dute izena. Gaztarik onenak 250 euroko saria jasoko du, garaikurrarekin batera, joan den urtean Maria Angeles Iñurra-tegi zeraindarrak jaso zuen modukoa. Iaz hura izan zen irabazlea, eta Ramon Mugertza hernaniarra bigarrena. Baina sariak sari, aurten ere partaidetza handia egongo da txapelketan, azken urteetan gertatu den moduan, eta euskal gazten maila ona agerian geratuko da beste behin.

EPAIMAHAIEN ERABAKIA

Gazta guztiak dastatzen lehenak izateko aukera, baina, epaimahaikideek bakarrik izango dute. Erabakia hartu ostean jarriko dituzte salgai saritutako gaztak, eta hori ez da goizeko 11ak arte izango. Orduan aurkeztu beharko dituzte partaideek udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Aurten ere epaimahaia osatuko dute gaien adituek eta herritarrek. Mahaia- ren burua Alberto Elortza izango da, Zelaizabal jate- txeko sukaldaria, baina ez du erabakia bakarrik hartu beharko. Idiazabal izen- dapena ematen duen era- kundeko ordezkari bat ere izango dugu gurean. Hala ere, ordezkapenik zabale- na hemengo jatetxeek izan- go dute. Igor Ezpeleta etor- rriko da Arteaga jatetxetik eta Fernando Crespo, Sara merenderotik. Kanpoko sukaldariak ere izango ditugu epaile: Elgoibarko Belaustegi jatetxetik Juan Mugertza etorriko da, Zubietako Araetatik Iñaki Zumelaga eta Axpetik Etxe- barri jatetxeko ordezkari bat ere etorriko da. Hemen- go baserritarren ordezkari Jesus Osa izango dugu eta *maitre* lanetan Patxi Barrutia ibiliko da, Ugarran jatetxekoa, hain zuzen ere.

Lehiaketan bertan, gainera, hainbat ezusteko egongo direla aipatu dute udal antolatzaileek, baina bakarra aurreratu dute momentuz. Izan ere, herrian zehar eta lehiaketetan Real eta Eibar taldeetako jokalaria egongo dira autografoak sinatzen. Edozelan ere, ez dira izango Santamasetara bisitan etorriko diren eza- gun bakarrak.



Lan zaila izango da epaimahaiarentzat aurten ere, baina Idiazabalgo jatorri izendapeneko kideak etorriko dira laguntzeko.

Gazta lehiaketako sari nagusia aurten ere 250 euro izango da. Baserriko gaztak bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

Epaimahaia sukaldari, baserritar eta pertsona ezagunez osatua egongo da. Sorpresak egongo direla aurreratu dute.



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE Erakustoki eta lantoki berria
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73



*Lantalde osoa,
helbide berrian
zure zerbitzura!*


NACEX



EUSKONACEX S.A

San Andres auzoa
Azeri kalea 7
20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 92 77
Faxa: 943 79 99 21




Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51


*Eraman
dotoretasuna
zure etxera*



CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak



EKIDE S.L
San Andres auzoa 2. 4A pab.
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 43
Faxa: 943 71 21 43
e-mail: ekide@ekide.es

*Santamasetan eta
Gabonetan ondo
ibili!*

GANADUA

Ganadu ugari egongo da Garibai inguruan

Behi eta idiez gain, *poney*-ak, ardiak eta ahuntzak egongo dira goizean, besteak beste.

USOA AGIRRE

Arrasateko baserrietako eta inguruko herrietako ganadua egongo da ikusgai Garibain. Behiak, ahuntzak, oreinak, astoak... Denetarik egongo da.

Santamas azokako zati garrantzitsuenetarikoa izan ohi da ganadua, eta aurten ere herrian izango ditugu ganadu mota ezberdinak. Ganaduen artean, inguruko baserrietako behiak izango dira nagusi. Aurten ere, urtero moduan,

Garibai etorbidean egingo da ganadu eta gainontzeko animalien feria eta hantxe jarriko dituzte animalia ezberdinentzako postuak.

INGURUKO GANADUA

Behiak, idiak, ahuntzak, oreinak, *poney*-ak, astoak, behorrak, ardiak, ahuntzak... Denetarik ikusteko aukera izango dugu Garibai etorbidean. Guztien artean protagonistak ber-



Behiak, idiak, ahuntzak, oreinak, *poney*-ak... Denetarik egongo da.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

tako eta inguruetakoko herrietako abelburuak izango dira. Hala, Arrasateko baserrietako ganadua ez ezik, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergarako hainbat baserrietako ganadua ere egongo da ikusgai.

Behiak, 20 bat buru, bertakoak izango dira, baina ahuntzak, oreinak eta idiak, adibidez, Beasain eta Azpeitia ingurutik ekarriko dituzte.

SALEROSKETA GUTXI

Jakina denez, salerosketa-rako baino gehiago, ikusteko azoka izaten da Santamasetakoa, eta guztien ikusmina betetzeko asmoz aurten ere mota askotako animaliak ekartzen saiatu dira antolatzaileak.

Behi txiki eta 'poney'-ekin jolasean aritzeko aukera

Ganadu mordoak egongo da Garibai etorbidean eta jende askok egingo du hara bisita, animaliak ikusteko. Baina, ganadu erakusketaz gainera, jolasak ere egongo dira goizean zehar Gorritiren eskutik.

Behi txiki, *poney* eta bestelako animalia batzuk ekarriko dituzte Gorriti eta bere lagunek. *Poney*-en gainean buelta bat eman edo behi txikiekin jolasean aritzeko aukera egongo da. Adin guztiendako moduko denbora-pasarako ekintzak antolatuko dituzte.

Arrasateko baserrietako ganadua ez ezik, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergarako baserrietako ganadua egongo da ikusgai


Gipuzkoa etorbidea 6, Legarre Pabilioia

Tel: 943 79 96 53 Fax: 943 71 26 26

zaldibar@ibercom.com

ZALDIBAR

errotulazio zerbitzuak



aholkularitza, garapena eta kalitatea akaberetan

Errotulazio itsasgarria • Ibilgailuen errotulazio integrala • Barruko zein kanpoko seinalizazioa
Grabatuak: inox.-letoa-aluminioa-plastikoa • Fresaketak: Metakrilatoa-DM-PVC • Letra gorputzdunen fabrikazioa
Display eta moduloak

HEGAZTIAK

Hegaztirik ez da egongo aurten azokan

Hegazti-gripena dela eta, azokarik ez egiteko kautelazko neurria hartu du Europako Batasunak

USOA AGIRRE

Urtero egin ohi dira hegaztien azoka eta erakustaldia Biterin, baina aurten ez da hegaztirik egongo, Europako Batasunak ezarritako neurriak direla-eta.

Europako Batasuneko Animalien Segurtasunerako eta Elikagai Katearen Batzorde Iraunkorrek erabaki zuen, joan den azaroaren 23an egindako bileran, kautelazko neurria luzatzea datorren urteko maiatzera bitartean.

Hain zuzen ere, biosegurtasunerako neurriak hartu dituzte. Horregatik, debekatu egin dituzte hegaztiak biltzen dituzten aire libreko azokak eta abeltzainen lehiaketak.

Euskal Autonomia Erkidegoan neurri horiek lege egin zituzten azaroaren 2ko aginduaren bitartez. Aginduak dioenez, "debe-katuta daude EAE guztian eskortako hegaztiak edo



Pena handiarekin hartu dute herritarrek hegaztien azoka ez egitea.

beste edozein motatakoak, azoka, merkatu, erakusketak edo lehiaketetan". Ondorioz, ez da hegaztirik egongo Santamasetako azokan, ezta Donostian eta Bilbon egiten diren Santo Tomas azoketan ere.

PANDEMIAREN BELDURRA

Urtero, negu atarian, gripez berbetan hasten direnean irteten da pandemiaren gaia. Aurten ere hala izan da. Gainera, han eta hemen azaldu dira hegaztien gripe kasuak eta horrek beldurra piztu du herritarren artean. Badi-rudi, ordea, pixkanaka gutxituz doala beldur hori. Hala ere, hegazti-gripena zabal ez dadin hartutako neurriek bere horretan jarraitzen dute.

Santamasetan ez ezik, Donostian eta Bilbon egiten diren Santo Tomas azoketan ere ez da hegaztirik egongo

Baserriko oilaskoak aztertu egingo ditu Eusko Labelak

Eusko Label erakundeak jakinarazi duenez, baserriko oilaskoak ere aztertu egingo dituzte, gizartean sortu den alarma dela-eta. Hala, oilaskoak aztertu ondoren txartel bat jarriko diete oilaskoei, egindako azterketan emaitza negatiboa eman dutela egiaztatzeko. Erakundearen helburua jendea lasaitzea da. Izan ere, azken asteotan hegazti-produktuekiko mesfidantza dagoela sumatu dute.

Eusko Labelak hartutako neurri horrek egoera bere onera etorri arte iraungo du.



ANBOTO

Ondo pasatu Santamasak!

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK, S.A.

AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Iturriotz 11 ARRASATE

Tel.: 943 77 14 11 / Faxe: 943 77 08 82

www.inmoarrasate.com

ZABALA oinetakoak

57 urtetan elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun Santamasak

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27




ONDO PASAU GABONAK!

Otalora lizentziaduna 20, behea ARRASATE
Tel.: 943 71 25 89

King's
Ile apaindegia

Zarugalde 23. ARRASATE

Tel.: 943 79 84 88



ARTISAUTZA

Gabonetako oparietan pentsatzen hasteko aukera

Oparirik tradizionalenetik bitxirik modernoenera, denak dauka lekua artisauen azokan.


J. B.
Artisauen lanen eskaintza zabala izango dugu aurten ere Santamasetan. Mota guztietako proposamenak aurkitu ahal izango dira, gainera.

Jokin Zaitegin izango da aurten ere herriko zein kanpoko artisauek eta eskulangileen topalekua. Guztira 40 bat etorriko dira proposamen interesgarri eta bitxiek.

Gabonetako egunak gertu, aukera benetan polita da opariren bat edo beste Santamasetako azokan erosteko. Ideia eta proposamenak gutxienez ez dira faltan egongo. Jertserik tradizionalenetatik apaingarri modernoenetaraino, ez dira gutxi Jokin Zaitegin aurkitu ahal izango diren bitxikeriak.

Betiko langintza tradizionalek ohiko lekua izango dute azokan: Gabiriako Juan Elgarrestaren abarrak eta Edorta Muruak

Nafarroatik ekarritako eskal ikurrak, besteak beste. Larrua lantzen ere makinan bat artisauek egongo dira: Idoia Ibañez, Elgetako Eklexamendi tailerrekoak, Artilorekoak, Yolanda Begiristain eta beste asko. Baina bestelako oparietan pentsatzekotan, bitxigintzako bestelako saltokiak ipiniko dituzte Nerea Kerexetak eta Eibarko Suoker tailerrekoak. Zeramikan Carmen Bollar ibiliko da, besteak beste, eta jostailuak erosteko aukera ere egongo da Lekutxu gasteiztarrekin eta Anoetako Juan Carlos Oterorekin, hain zuzen ere. Bestalde, musika tresnak ere eskuratu ahal izango dira Jose Manuel Agirreren eskutik. Modu aproposa, hortaz, Gabonetako opariekin pentsatzen hasi eta hemengo artisauen lan bereziak erosita, opari ederra egiteko.



Hargintzako bi postu egongo dira aurten, Muxika eta Adunakoak.

ARTXIBOA

Eguena, 22
10:00etan hasita

Jokin Zaitegi plazan

Artisauen langintza eta bitxikeriak ikusgai

Arrasaten ere makina bat artista ditugu

Herriko ordezkari-tza polita egongo da artisauen azokan: ia 40 eskulangileetatik laurdena baino gehiago herrikoak izango dira. Bitxigintzan Inma Delgado, Nerea Kerexeta eta Jesus Krutzeta ibiliko dira. Idoia Ibañezek larrua, bolilloak eta tapizak egingo ditu; eta Amaia Otadui eta Maider Altzelaik larrugintzan eta kakorratzean jardungo dute. Loixekoek ere ez dute hutsik egingo aurtengoan, eta euren postutxoa ipiniko dute urtean zehar egindako lanekin. Horietaz gain Imanol Aranburu ibiliko da zeramikagintzan eta Jose Maria Txosa tailagintzan, Pedro Pacheco-rekin batera; azken horrek egurrezko etxeak egiten ditu. ASPACEkoek ere postua ipiniko dute.

Euskal Herriko makina bat lekutatik etorriko dira gurera artisauek; batzuk langintza benetan bitxiek gainera.


Herriko artisauek ordezkari-tza zabala izango dute. Arrasateko 11 postu egongo dira, artisauek azokaren laurdena.

MENDIZABAL okindegia

egunero zure alboan!



ARRASATE
Seber Altube 2
943 79 89 60



Ondo pasatu Santamas jaiak!



Altzariak eta dekorazioa

Ondo pasatu Santamasak!

Itxe
mobiliario y decoracion

Ferrerias 17 Tel. eta faxa: 943 79 03 17

lantzzeria
B
Bea

Otalora kalea 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 05

JAKIAK

Denetariko jakiak egongo dira Laubiden

Ogia, gazta, kontserbak... Denetarik egongo da Laubiden jarriko dituzten mahaietan

USOA AGIRRE

Laubide plazan egongo dira jateko, edateko eta bestelako produktuak. Hemengo baserriarrek zein gonbidatuak etorriko dira euren elikagaiak saltzera.

Ogia, gazta, kontserbak, ahatearekin egindako jakiak, loreak, arbolak eta beste hainbat produktu izango dira Laubide plazan. Guztira 72 mahai jarriko dituzte, eta hemengo zein kanpoko saltzaileak etorriko dira.

Kontserbagileak etorriko dira Nafarroatik eta pateak eta deribatuak ekarriko dituzte Iparraldetik. Errioxatik etorritako ardo-gileak ere egongo dira, eta ardozaleek egin beharko dute osteratxoren bat Errioxako ardoa dastatzeko. Baina Arrasateko txakolina, Xabier Arregik egindakoa, Maalako gozodendako produktuak eta Eskoriatzako turroi bere-



Hainbat jaki dastatzeko aukera egongo da azokan.

zia ere izango ditugu, Uxarte baserrian egindakoa.

ELKARTASUN PRODUKTUAK
Jateko eta edatekoek gain, Harreman elkartekoek ere elkartasun saltokia jarriko dute eta Sahararen aldeko

produktuak egongo dira salgai; besteak beste, datorren urteko egutegia izango dute salgai 10 euroren truke.

LORE ETA BELARRAK
Loreendako ere egongo da lekua Santamasetako azokan. Laubideko mahaietan egongo dira lore naturalak, arbolak, lore lehorrekin egindako apaingarriak eta sendabelarrak.

Lore eta jaki zaleek, beraz, Laubiden dute zita.

Jateko eta edatekoek gain, elkartasun produktuak ere egongo dira Laubide plazako mahaietan

Ezti dastatzea egingo dute Eztizale elkartearen eskutik

Aurten ez da ezti lehiaketarik egingo Santamas eguneko azokan, baina ezti dastatzeko aukera egongo da. Eztizale elkartearen eskutik Euskal Herriko ezirik onenak dastatu ahal izango dira plazan jarriko dituzten mahaietan. Era askotako eztiak ekarriko dituzte: milalore erako eztiak, txilar erakoak, gaztainarekin egindakoak eta akaziazkoak, besteak beste.

Goizean zehar izango dira plazan Eztizale elkarteko kideak, nahi duten herritar guztiei euren ezti probatzeko eskaintzen.

Uzarte

Ondo pasau Santamas jaixak!

Olarte 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

JOSE ANTONIO

gizonezkoen ile apaindegia

Gabon zoriontsuak!!



Otalora lizentziaduna, 22
Tel.: 943 79 42 10

kuxkur

GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

OGIA
DELICATESSEN

AURRETIK PRESTATURIKO JAKIAK

URDAITEGIA
PASTELAK

JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA

Olarte kalea 20
Tel.: 943 79 45 55
ARRASATE


Ondo pasatu Santamasak eta urte berri on!

ETXEAN NAHI DITUGU!


Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Irati, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz




KEPA URRA



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



IGOR LETONA



TXUS GOIKOETXEA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT



GORKA AZTIRIA



GAIZKA OLABARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA




JESUS MARI ZABARTE



JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



SAIOA ALZUA ETA GAIZKA AZKARATE

*Alaitasuna ta jai giroa
ez dira izango aparte
baina halere falta direnak
oroitu nahi genituzke
Eperra, Ion eta beste guztiak
nahi doguz hemen ta aske
gure herria maite dugunez
ez dugu etsiko bape
borroka eta jaia uztartuz
helburuak lortu arte*

PINTXO LEHIAKETA

Herriko tabernetan pintxo onenen arteko lehia egongo da

Bigarren aldiz antolatu du aurten Udalak herriko tabernen arteko pintxo lehiaketa

USOA AGIRRE

Ganadu eta jakien lehiaketek gain, pintxo lehiaketa egingo dute aurten bigarren aldiz. Herriko pintxorik onenak izango dira lehian Santamas egunean.

Santamas egunean ohitura da txistorrarekin egindako pintxoak jatea sagardoarekin lagunduta. Arrasateko Udalak txistorrarekin egindako pintxoak alde batera utzi eta beste pintxo batzuk lantzeko lehiaketa antolatu zuen iaz. Arrakasta handia izan zuen iazko lehiaketak, 27 pintxo ezberdin aurkeztu zituzten eta jaki originalak ikusteko aukera izan zen. Ikusi bakarrik; izan ere, dastatu epaimahaikoek bakarrik egin zituzten.

Datorren egunean, Santamas egunean, egingo dute Arrasateko II. Pintxo Lehiaketa, Udalak antolatuta. Goizeko 10etan hasiko da lehiaketa, eta herriko taberna guztiek har dezakete parte pintxo lehiaketan. Hala, Arrasateko pintxorik onenak zein tabernetan dauden jakin ahal izango dugu.

Parte hartu nahi duten herriko tabernekin abenduaren 20a, martitzena, baino lehen eman beharko dute izena udaletxeko 943 79 09 00 telefonora deituta. Izen-



Arrasateko pintxorik onenak zein tabernetan egiten dituzten jakingo dugu egunean.

ematea doan da. Hala, izena emandakoan, Santamas egunean aurkeztu beharko dituzte pintxoak 10:00ak baino lehen Arrasateko udaletxeko beheko solairuan; han izango dituzte zain epaimahaiko kideak.

BI MODALITATE

Parte hartzen duten tabernekin bi modalitateetan parte hartu ahal izango dute: lehenengo modalitatea osagai nagusizat antxoa duena da; eta bestea, berriz,

nahi diren osagai guztiekin egindakoa. Hain zuzen ere, pintxo mota bakoitzeko hiru plater aurkeztu behar dituzte lehiakideek.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia gaian adituak diren profesionalen osatutako dute: Baster Alde jate txeko Aitor Telleria, jate txeko ugazaba; Donostiako Art Bokado catering enpresako Luis Gonzalez; La Chuleta jatetxeko sukaldaria, Jose Luis Blanco;

Gasteizko Toloño tabernako jabea; eta azken orduko gonbidatu ezagun bat izango dira epaimahaian. Lehiaketako antolatzaileek, aurreko urtean egin zuten moduan, Realeko eta Eibarko futbol jokalaria gonbidatu dituzte plazan izango diren pintxo eta gazta lehiaketetara. Udaletxeko arkupean egongo dira futbolariak, eta nahi duten guztiek jokalarien sinadura bat edo beste lortzeko aukera izango dute.

Guztira 40 puntu banatu ahal izango dituzte pintxo bakoitzeko. Hiru ezauzgarri hartuko dituzte kontuan: zaporea, aurkezpena eta errezetaren originaltasuna. Epaimahaia gehieenez 20 puntu eman ahal izango ditu zaporea kalifikatzeko; 10 puntu aurkezpena kalifikatzeko eta beste 10 puntu errezetaren originaltasuna txalotzeko.

Irabazleak plaka bat jasoko du oroigarri modura, Arrasateko II. Pintxo Lehiaketako irabazlea idatzita duela. Irabazleak tabernan jarri ahal izango du plaka hori eta herriko pintxorik onenak bertan egiten direla aditzera emango du horrela.

Bakailaoa eta antxoa nagusi

Iaz txapelketan 27 pintxo ezberdin aurkeztu zituzten herriko tabernekin; 13 taberna aurkeztu ziren antxoaz egindako pintxoaren modalitatean eta 14 taberna parte hartu zuten bigarren modalitatean, edozein osagaiez egindako pintxoekin. Xaramela eta Egazka tabernetako pintxoek irabazi zuten lehiaketa. Xaramelak jaso zuen antxoaz egindako pintxoaren saria eta modalitate librean, berriz, Egazka izan zen garaile.

Oso gustura jaso zituzten bi tabernetako jabeek sariak. Egazka tabernako Teo Iñurrietak esan digunez, "gauza handia da tabernan pintxo lehiaketako irabazlearen plaka edukitzea". Egazkako tabernariak bakailaoarekin egindako pintxoak aurkeztu zituen; bakailaoa pillean pintxo batean eta bakailaoa ajoarriero erara bigarren. Aurten ere aurkeztuko du pintxoren bat, eta oso bitxia izango dela esan digu.

Xaramela tabernakoek ere parte hartuko dute aurten. Antxoa osagaitzat zeukan pintxoaren artean onena izan zen euren iaz, eta seguru kalitatezko pintxoak aurkeztuko dituztela aurten ere.

Santamas egunean, goizeko 10ak baino lehen eraman beharko dituzte lehiaketarako pintxoak udaletxera

Bi pintxo mota egin ahalko dituzte lehiakideek: antxoazkoa bata eta nahi diren osagaiekin egindakoa bestea



Olarte kalea 6 • 20500 ARRASATE
Tel.: 943 77 10 16

Gabon zoriontsuak guztioi!

KROSA

Ea zein koadrilak eramaten duen bildotsa

Santamasetako Koadrilen Arteko Krosa 12:30ean hasiko da Seber Altube plazan

USOA AGIRRE

Domekan, hilak 18, jokatuko dute Arrasateko herri lasterketa nagusia, Arrasate Atletiko Taldeak antolatuta. Koadrilarik azkarrenak eramango du bildotsa.

Aurten 28. aldiz egingo dute Santamasetako Koadrilen Arteko Krosa. 12:30ean hasiko da proba nagusia, baina aurretik gaztetxoenen txanda izango da. Goizeko 11etan hasiko dira 15 urtetik beherakoen lasterketak. Sei adin tarte

ezberdinetan banaturik, herri barruan jokatuko dituzte lasterketak.

SEI KILOMETRO

Koadrilen arteko lasterketari dagokionez, ez da aurreko aldaketarik izango, urteroko ibilbidea egin beharko dute lasterkariek. Seber Altuben hasiko da lasterketa, eta handik Maala gurutza eta Olartetik Muxibarreraino joango dira. Muxibarko biribilgunean buelta erdi eman eta Arbolapetatik Seber Altubera itzuliko dira. Ibilbide horri hiru itzuli eman beharko dizkiote eta laugarren itzulian Seber Altubetik plazarainoko bidea egin beharko dute korrikalariek, han egongo



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Herritar askok esku hartzen dute Santamasetako Krosean.

baita helmuga. Hala, sei kilometroko ibilbidea egin beharko dute guztira.

HERRI LASTERKETA

Urtero 60-80 korrikalari inguruk hartzen dute parte lasterketan. Arrasatekoak izaten dira gehienak, koadrilen arteko lasterketa delako, baina beti egoten da baten bat inguruko herriren batekoa; Aretxabaleta, Eskoriatza edo Oñatikoa, adibidez.

Herri lasterketa izaten da eta giro ederrean egiten dute korrika parte-hartzaileek. Lehenengo helmugara iristen den koadrilak bildotsa jasoko du garaikur modura; bigarren koadrilak, untxia; eta hirugarrenak, berriz, oilaskoa. Koadrila bakoitzeko lehenengo bostak bakarrik hartuko dira kontuan, eta federatuek parte har dezakete.

ELKARRIZKETA FERNANDO ZUFIRIA

“Poztu egiten naiz umeak korrika ikusita”



Urte mordoxka darazazu atletismoan, ezta?

Bai. 14 urte nituela hasi nintzen atletismoan eta orain ere hor jarduten dut neska-mutilekin. Atletia izan nintzen, baina istripu baten ondorioz utzi egin behar izan nuen. Orain,

entrenatze lanetan aritzen naiz.

Jende askok parte hartzen du Santamasetako krosean?

Azken urteotan parte-hartzaile kopurua mantendu egin da. 60-80 korrikalari inguru animatzen dira urtero.

Korrikalari onak daude Arrasaten?

Zuhaitz Ezpeletak irabazi du Santamasetako krosa azken urteotan. Horrekin ikus dezakezu nahiko onak ditugula herrian atletak. Azken urteotan triatloietan-eta aritzen direnak geratzen

dira Santamasetako krosean lehenengo bost postuen barruan.

Zer moduz dago atletismoaren egoera Arrasaten?

Izan ditu garai onak eta txarrak, baina orain nahiko ondo gaude. Jendea badugu eta gustura ari dira lanean. Aurten harritura geratu naiz alebin mailako mutiko asko etortzen direlako entrenatzera, eta poztu egiten nau horrek. Krosean ez dira horrenbeste atleta aritzen, gehiago dira pista estaliko lasterketetan korritzen dutenak.

7 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek lasterketak jokatuko dira lehenengo, herrian zehar, goizeko 11etan hasita

Ibilbideari lau itzuli eman beharko dizkiote lasterketa nagusiko parte-hartzaileek; sei kilometro, guztira



**Hilarion
jatetxea-taberna**

Larrea plaza 5 • ARRASATE • 943 77 01 69

Eguneko menuak
Karta zabala

Era guztietako bazkari eta afariak
Taldea gazteendako prezio bereziak
Plater konbinatuak / Ogitartekoak / Sandwichak

sofa leniz

Sofatan eta atsedenerako sistematan barietate handia

Astelehen goizean itxita
Astelehenetik larunbatera
9:30-13:00 • 16:30-20:00

Tel./Faxa: 943 79 27 16
Araba etorbidea 3

Bengoa

Basati

Boliñete

Irati

Itzala

Biona

Iluntz

Rumba

Jai Zale


Branka

Amets

Monte

Gure Leku

Lora



*Geurean
girokiri-kirik
onena*

“Santamas egunean giro polita izaten da, baina lan egin behar da”

U.A.

Urte asko daramatza Bitorrek barraren atzean lanean. Santamas eguna ondo pasatzeko eguna da askorentzat, baina beste tabernari askoren moduan lan egitea egokituko zaio Bitorri. Santamas egunaz eta beste kontu batzuez aritu gara harekin.

Zer moduzkoa da lana barraren atzean Santamasetan?

Gogorra da. Izan ere, deskantsatzeko denborarik ez da izaten. Aurreko egunean berandu ixten da eta hurrengo egunean goizean zabaldu behar izaten dugu.

Zer nahiago, eguneko parranda ala gauekoa?

Lan egiteko hobe da egunez. Gauean oso nekatuta zaude, batez ere Santamas egunean, bezpera pasa eta

gero. Egunez oso giro polita egoten da, baina derrigorrez egon behar dugu tabernan, eta gauean ere egon behar dugu.

Esaten dute jendea ez dela parrandan irteten. Igarri duzue zuen tabernan beherakada hori?

Egubakoitz gauean ez da inor irteten, baina zapatueta giro ona egoten da.

Jendeak zer kontsumitzen du? Ezberdintasunik badago Santamasetan?

Garagardoa eta kalimotxoa utzi eta sagardoa edaten dute gehienek.

Santamas eta San Juanen artean ezberdintasunik?

Askoz nahiago dut Santamas eguna. San Juanetan, zoritxarrez, jende asko kanpora joaten da eta lau egun oso luze egiten dira.

Girotzen duzue taberna?

Normalean egunez trikitixa pixka bat jartzen

“Gogorra izaten da Santamas eguneko lana”

“Gehienek sagardoa edaten dute tabernetan”



“Girotzeko trikitixa jartzen dugu tabernan”

dugu. Gauean, berriz, betiko musika jarri ohi dugu. Guk ere janzkera aldatzen dugu. Blusa janzten dugu, Santamas egunean tipikoa da-eta. Hala ere, abarkarik ez dugu janzten; tabernan lan egiteko ez dira erosoak.



*Gabonak heldu dira
elurra ere bai
Gure eskolan dogu
bi astetan jai
Familiarekin gu
afaltzera alai
Egongo gara gero
Olentzeroren zain.*

Unai



PILOTA

Zesta-punta eta eskupilota, Uarkape frontoiko eskaintzan

Goizean hasiko dira (10:00) lehenengo saioak: lehenengo zesta-punta eta ostean eskupilota.

J. B.

Aurtengo berezitasuna zesta-punta erakustaldiak izango dira, Jai Alai Nafarroako enpresaren eskutik. Ostean, eguerdi aldera hasiko dira ohiko Santamasetako eskupilota saioak.

Zesta-punta eta pilota, horiek aurtengo Santamasetako kirol eskaintzako ardatzetako bat. Uerkapeko pilotalekuan izango dira partiduak, goizeko 10:00etan hasita. Lehenengo saioak zesta-puntakoak izango dira frontoi laburrean, 36 metrokoan. Erakusketa partiduak izango dira Aimar eta Kaltzakorta Santi eta Etxanizen aurkakoak. Nafarroako Jai-Alai enpresako jokalariek ibiliko dira eta goizeko 11:30ak arte egingo dituzte erakustaldiok. Partiduez gain kirol hau geurean apur bat gehiago zabaltzea da helburuetako bat, eta horregatik erakustaldiak anto-



Uerkapen izango dira aurten ere eskupilota partiduak, eguerdi aldera.

latu dituzte, ikuskizunarekin batera.

GOÑI UARKAPEN

Baina horiek ez dira Uarkapeko partidu bakarrak izango. Zesta-puntaren

Zesta-punta erakustaldiarekin kirol hau geurean ere gehiago ezagutaraztea eta zabaltzea da lortu gura dutena

ostean hasiko dira eskuzko pilota partiduak, Ordago Durangoko enpresako jokalariekin. Honela, Goñi II.ak binakako partiduak jokatuko ditu. Hain zuzen ere, oronoztarrak Torre II.aren

Ordago enpresak Goñi eta Lazkano ekarriko ditu

Nafarroako jokalariek izango ditugu zesta-puntan

Eguerdi aldera hasiko dira eskupilota partiduak

kin, Gernika, Torre III.a eta Bilbaok osatutako hirukoteari egin beharko dio aurre. Horren ostean eskuz banakako partiduak jokatuko dira Ordagoko jokalarien artean, eta amaizeko banakako partidu bat egongo da. Azkeneko topaketan Lazkano izango da protagonista: aurreko partidu sortetako garaileari egin beharko dio aurre.



ALDAPE

taberna

(Batzokia)

ONDO PASAU GABONAK!

Eguneko menua, asteburueta menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41- Arrasate
Tel.: 943 79 63 69



HOTEL
MONDRAGON

Biteri etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 • Faxe: 943 71 23 43
Posta-e : hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com

Sikol-en

zure


gabonetako

oparia beti

berezia

izango da

Olarte 31 - ARRASATE
Tel.: 943 79 89 32



ESKALADA

Indartsu bueltatuko da Boulder Txapelketa

Bihar goizean egingo dituzte kanporaketak, eta finalak arratsaldean

XABIER URTZELAI

Joan den urtean kale egin zuen Santamasetako Boulder Txapelketa. Eta, ordainsari moduan, aurten ahalegin berezia egin dute antolatzaileek, Euskal Herri osoko eskalatzailak erakartzeko.

Biharkoa Santamasetako 5. Boulder Txapelketa izango da, eta oraingoa hainbat herrikuntzekin dator. Hasteko, antolatzaileek ez dute gura probak izatera herrikoia galtzea. Hau da, edozein herritarrek har dezake esku, eta hori bultzatu gura dute antolatzaileek, gainera: "Jendea animatzea gura dugu, parte hartzeagatik opariak egongo dira-eta. Guztiek ez dute txapelketa irabazteko gaitasuna izango, baina hori gutxienezkoa da, giro ederra egongo da-eta". Horrekin batera, baina, txapelketa ikusgarriago egiteko Euskal Herri osora egin dute deia, eta maila handiko



Aste barruan hainbat eskalatzaila izan dira boulderrean, entrenatzen.

eskalatzailak espero dituzte: "Ez dakigu kanpotik zenbat etorriko diren, baina Arrasaten bertan badaude maila oneko eskalatzailak,

eta eurei irabazteko gorputzaldi onean dagoen jendea etorri beharko da". Faboritoen gainean ere galdetu diegu antolatzaileei: "

Markel eta Ander Mendietan anaiak aurrean ibiliko dira, eta baita Enaitz Balantzategi eta Ander Lasagabaster ere; horiek dira, printzipioz, faboritoak.

Bihar, zapatua, 10:00etan hasiko dira izenak hartzen, eta jarraian hasiko dituzte txapelketako kanporaketak. Finalak, berriz, 18:00etatik aurrera jokatu dituzte.

Herriko eskalatzailaekin batera Euskal Herriko etorritako eskalatzailak ere espero dituzte biharko txapelketarako

ELKARRIZKETA EGOITZ UNAMUNO / TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA

"Opariez gain, sariak dirutan emango ditugu"

Indartuta dator Boulder Txapelketa.

Bai. Joan den urtean ez genuen antolatu txapelketarik, eta pena izan zen. Aurten, berriz, gogo handiarekin hasi gara txapelketa antolatzen, eta aurrekoak baino txapelketa oso-agoa antolatu gura izan dugu.

Euskal Herri osoko jendea etorriko da.


Ez da Euskal Herriko Txapelketa izango, besteak beste, epaileak ez direlako ofizialak izango. Baina, Euskal Herri osora zabaldu dugu deia, hiriburuetan ere ibili gara-eta kartelak jartzen.

Zelan lortu kanpoko eskalatzailak erakartzea?

Orain arte irabazleen eta txapelketan esku hartzen zutenen artean opariak banatzen genituen. Aurten, txapelketan esku hartzeagatik kamisetak, motxilak, galtzerdiak, termikoak eta horrelakoak oparituko ditugu, baina lehenengo postuetan sailkatzen direnei dirutan emango diegu saria.

Pilotalekuan egin gura zenuten finala.

Hori zen gure asmoa, baina ez dakit lortu ahal



izango dugun. Bihar goizeko kanporaketak betiko boulderrean egin gura genituen, eta arratsaldeko finalerako zerbait berezia prestatu. Pilotalekuan, aldamiok eskalatzeko orma bat jarri gura genuen eta bertan egin finalak.

Zaleek eskertuko lukete.

Bai, oso ikusgarria izango litzateke. Kontua da, egunero ibiltzen garen boulderrean leku gutxi dagoela ikusleendako. 60 lagun ingururendako jarlekuak jarri ahal izango dira hor, eta pilotalekuko harmailtan askoz ere jende gehiagorendako lekua dago. Kontua da, baina, aldamiok lortzeko dirua eskatzen digutela, eta guk ez dugu horrenbesteko aurrekonturik.

**GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!**



Markiegi

A R R A S A T E

Olarte 2 Tel.: 943 79 15 32

<http://www.goiena.net/blogak/markiegi>

ELKARRIZKETA MAIXA LIZARRIBAR TRIKITIXA ESKOLAKO IRAKASLEA

“Ikasleek nahiago izaten dituzte Santamasak, giroarengatik”

J.B.

Aurten ere Arrasateko Trikitixa eskolakoek ez diote hutsik egingo urteroko hitzorduari. Kalea da trikitilariaren etxea, eta eskolakoek oso gustuko dute, batez ere, Santamasetako giroa. Gertu daude, hasiak dira-eta trikitixa eta panderoak berotzen.

Irteera berezia da Santamasetan egiten duzuen hau?

Urtero egiten dugun irtenaldia da; herrian jaiak direla-eta, guretzat aitzakia ederra da ikasle guztiakin kalera irteteko. Aurten ere, urtero moduan, kalean jotzen ibiliko gara eta txistorra eta taloak jaten, giroaz gozatzen gu ere. Ikasleekin batera San Juanetan ere irteten gara. Beste jai askotan ere irteten gara, baina taldetxo moduan, ez ikasle guztiakin, festa edo ospakizun berezietan.

Kopuruz talde polita osatu ohi duzue gainera.

Santamasetan gehiago batzen gara, kalean giro polita egoten da eta ikasle-

ek uste dut nahiago izaten dituztela Santamasak.

Abesti berezirik jotzen duzue?

Betiko abestiak jotzen ditugu, beti egoten da-eta ikasle berriren bat, eta horregatik pieza ezagunak jotzen ditugu. Abesti batzuk dakizkienean, ikaslea kalera atera ohi dugu, eta erreperitorioa mugatua izaten dugu beti alde horretatik. Ikasten duenak, berez, gero kalean jotzeko ikasten du, eta motibazio horren bila goaz beti.

Zenbat ikasle daukazue Trikitixa eskolan?

Gutxi gorabehera 80 edo 90en bat izango dira, eta Saiolanen eraikinean ematen ditugu eskolak. Lau irakasle gara.

Kopuru nahikoa da bizi irauteko?

Ezin dugu sekula esan etorkizuna bermatuta dagoenik, beti dabil-eta jende berria irten eta sartzen. Badago jendea hainbat urte daramatzana eta gero utzi egingo duena, baina normalean ziklo bat betetzen da, 10 eta 18 urte bitartekoa edo.

Badaukagu etorkizuneko promesarik arrasatearren artean?

Beti dago norbait, bai-

“Betri irteten dira ikasle berriak kalera jaietan”

“Kalean jotzea da bilatzen dugun motibazio bat”

“Ikasle eta eskolen aldetik behintzat ez dago krisirik”

na hori lan kontua da, lan handiagoa egiten duenak destakatu ohi du.

Erromeria eta plaza giroa itzuliko da?

Gero eta trikitixa talde gutxiago dago, beste gauza berriago batzuk ari direlako sartzen. Ikasle eta eskola aldetik, behintzat, krisialdirik ez dago, baina ez da bortxatu beharreko egoera. Erromeriak atzera modu naturalean etorri behar badu, ongietorria izan dadila.



SARA

MERENDERUE

EUSKAL HERRIAREN ALDE LANEAN ETA SUFRITZEN ARI DIRENEI LAZTAN HANDI BAT ETA URTEAN ZEHAR GURE ARTEAN IZAN DIRENEI ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

Tel.: 943 77 15 86 • ARRASATE

AIZKOLARIAK

Aizkora desafioa kirolari onenen artean

Aizkolarari onenen saioa ikusteko aukera egongo da Zaldibarko pilotalekuan, eguerdian

USOA AGIRRE

Euskal Herriko aizkolaririk onenak izango dira Santamas egunean Zaldibarko pilotalekuan. Nagusiekin batera izango dira aizkolarari gazteak ere.

Olasagasti Euskal Herriko txapelduna, Arrospide, Nazabal, Larretxea, Mugertza eta Barberena ari tuko dira aizkora Santamas eguneko proban. Hiru aizkolarik beste hiruren aurka jokatu dute. Hala, Olasagasti, Arrospide eta

Mugertzak osatutako hiru koteak Larretxea, Nazabal eta Barberenaren aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Honako lana egin beharko du talde bakoitzak: kana erdiko 14 ebakitze; ebakitze bat azkartasuna kontuan hartuta; ebakitze bat zutikako enborrari; eta, azkenik, ebakitze bat kolpetan kontatuta. Lau probetan ondoen aritzen denak irabaziko du desafioa.

GAZTETXOEN SAIOA

Aizkolarari gaztetxoek ere beraien trebetasuna eta indarra erakusteko aukera izango dute Zaldibarko pilotalekuan. Izan ere, Euskadiko bi aizkolarari gaztetxorik onenak izango dira nor baino nor; Ugaitz, Euska-

diko aizkolarari gazteen txapelduna eta Atutxa, Euskadiko txapeldunordea. Bien arteko desafioa ikusi ahal izango da herri kirolen ikuskizunari amaiera emateko. Aizkolarari bakoitzak kana erdiko sei ebakitze egin beharko ditu. Sei ebakitzeak lehenengo egiten dituenak irabaziko du desafioa.

Herri kirolean ohikoa denez, apustuak egiteko aukera egongo da pilotalekuan eta seguru giro bikaina izango dela nagusi.

Aizkolarien desafioa ikusteko aukera egongo da Zaldibarko pilotalekuan.



GOENKARA

Euskadiko aizkolarari gazteen txapeldunaren eta txapeldunordearen arteko desafioa izango da jaialdia amaitzeko

Euskal Herriko eta Munduko aizkolarari txapelduna Arrasaten

Jose Mari Olasagastik Euskal Herriko eta Munduko Txapelketak lortu berri ditu 46 urterekin. Orain aizkora aritzen diren artean beteranoenetako bat da igeldotarra, baina oraindik sasoi betean dago. Bost bider izan da Euskal Herriko txapeldun (1996an, 1998an, 1999an, 2001ean eta 2005ean) eta Munduko txapelketa lortu du aurten Nazabalekin. Olasagasti 16 bat urterekin hasi zen aizkora. Lehenengo, ordea, beste herri kirol batzuk probatu zituen: harriak jasotzen lehenengo, segan gero, eta ondoren hasi zen aizkorarekin.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Durango salgai!

<p>Patologia orokorra. Atal orokorra, arnas aparatua eta zirkulazio-aparatua</p> <p>Edume Ugarte 52,50 €</p>	<p>Elementuen taula periodikoa (14 urteko aurrera)</p> <p>Esku taula (21x29,7 cm) 4 € Horma-irudia (90x60 cm) 20 €</p>	<p>Hitzmix (12 urteko aurrera) CD-ROMa 29,95 €</p>
<p>EUKLIDES. Elementuak</p> <p>Pabí Angulo Martín 36,50 €</p>	<p>Merkatua eta globalizazioa</p> <p>José Luis Sempedro Iñaki Zañabiar Eduardo Monasterio 12 €</p>	<p>Urpeko arretina (8-12 urte) CD-ROMa 27,45 €</p>

liburuak • hiztegiak • aldizkaria • multimedia CD-ROMak • ikus-entzunezkoak • katalogoa

ELHUYAR
Zelai Haundi, 3 • Osinalde Ind. • 20170 Usurbil • tel.: 943 36 30 40
elhuyar@elhuyar.com • www.elhuyar.org/denda

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

TAPIA ETA LETURIA

Trikiti doinuak alaituko du plazako erromeria

Tapia eta Leturia taldeak dantzarako musika eskainiko du plazan, 19:30ean hasita

USOA AGIRRE

Trikiti doinuekin emango diote amaiera Santamas egunari Tapia eta Leturia taldeko kideek. Eurekin batera dantzan ikasteko aukera ere egongo da.

Tapia eta Leturia ize-
nez dira ezagunak,
baina soinu jotzaile
eta pandero jotzai-
leak baino musikari gehia-
gok hartzen dute parte tal-
dean. Joseba Tapiak jotzen
du trikitia, Xabier Leturiak
panderoa, Arkaitz Mine-
rrek biolina eta mandolina

eta, azkenik, Jexux Aran-
buru arduratzen da pianoa
jotzeaz. Abeslari lanetan
Tapia eta Leturia aritzen
dira gehienetan, baina
Miner eta Aranburuk ere
laguntzen diete.

DANTZAK IRAKASTEN

Musikariekin batera Jokin
Otamendi dantzaria aritu-
ko da ikusleen artean jen-
deari dantzak erakusten.
Dantza errazak izango dira



Tapia eta Leturiak urte asko egin dituzte Euskal Herriko erromeriak alaitzen.

TAPIA ETA LETURIA

eta ez oso luzeak, edozeinek
egiteko modukoak. Aspal-
dian Jokin Otamendirekin
batera egiten dituzte erro-
meriak Tapia eta Leturiak.
Hala, jende gehiago ani-
matzen da musikarekin
batera dantzan egitera.

URTE ASKO ELKARREKIN

Tapia eta Leturia 1984an
elkartu ziren lehenengoz.
Harrezkero trikiti musika
jo dute eszenatoki guztie-
tan, txapelketetan hasi eta
jai eta erromerietaraino.
Kontzertu-areto edota rock
nahiz folk jaialdietan ere jo
izan dute. Lehenak izan
ziren trikiti bikote klasikoa
(soinu txikia eta panderoa)
beste tresna eta soinu
batzuetara irekitzen, baina,
betiere, tradizioari eutsi
izan diote.

**Musikariekin batera, Jokin
Otamendi dantzaria arituko da
ikusleen artean, jendeari
dantzak erakusten**

Trikitiaren soinua zabaldu dute mundu osoan

Tapia eta Leturia taldeak 1992an egin zuen lehenengo bira atzerrian, Britainia Handian. 1993an, Negu Gorriak taldearekin jo zuten Europan eginiko biran eta 1994an zeharkatu zuten lehenengoz Ozeano Atlantikoa, Kalifornian jotzeko. Bidaia haietako emanaldien ondorioz, bira interesgarri bat egin zuten 1996an Kanadan barrena, eta hainbat folk jaialditan parte hartu zuten. Kanadara egindako bidaietan sakondu zuen Joseba Tapiak Quebecetikiko harremana, bestelako musika-fruitu batzuk ekarriko zituen.




LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA

Bixente Ferrer, 1 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Gabon hauetan mima zaitetz!

zorionak eta urte berri on

BERTSOLARIAK

Punta-puntako bertsoak entzuteko aukera

Santamas eguneko bertso saioan txapelketa nagusiko sei finalista izango dira Amaian, 20:00etan

USOA AGIRRE

Urtero antolatzen du AEDk bertso saioa Santamas egunean. Aurten, Txapelketa Nagusia jokatzen dela-eta, punta-puntako bertsolariak izango ditugu.

Hain zuzen ere, Bertsolari Txapelketa Nagusiko sei finalista izango dira Santamas egunean Amaia antzokian kantuan: Andoni Egaña (oraingo txapeldua), Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Igor Elortza eta Unai Itu-

rriaga. Sei horiek izango dira datorren domekan, hilak 18, jokatuko den txapelketako finalean, Amets Arzallus eta Sustrai Colinarekin batera. Bizkaian izango da lehenengo aldiz txapelketako finala, Barakaldoko BECen, hain zuzen ere.

Aurten Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatzen dela-eta bertso saio handia antolatu nahi izan dute AEDkoek. Eta lortu egin dute. Urtero jende asko joaten da Santamas eguneko bertso saiora. AEDko Kepa Lizarralde esan digunéz, "jendeak ohitura hartuta dauka eta urtero joaten dira batzuk". Urtero 200 edo 300 bat lagun biltzen dira



Aitor Mendiluze eta Unai Iturriaga Santamas eguneko bertso saioan izango dira Amaian.

Amaia antzokian, baina aurten jende gehiago biltzea nahi dute. Horregatik ahalegindu dira Bertsolari Txapelketako finalean dauden bertsolariak ekartzen.

TXAPELKETA NAGUSIA

Egaña eta Lujanbio hasieratik daude finalean, duela lau urte jokatu zen txapelketan txapeldun eta txapeldunorde gelditu zirelako. Gainontzeko laurak, Mendiluze, Maia, Elortza eta Iturriagak, finalerdietan ekin zioten txapelketari eta finalerako sailkatu dira.

Dagoeneko hasiak dira batzuk kinielak eta apustuak egiten, eta ikusteko dago Andoni Egañari txapela norbaitek kenduko ote dion edo ez. Orain arteko saioetan txapela janzteko moduko aleak kantatu dituzte guztiek ere.

ELKARRIZKETA ENAITZ ALUSTIZA

"Gaiak jarri baino nahiago bertsoetan egin"



Sei finalistarekin saioa irtengo zaizue.

Duela ia bi hilabete kiniela egin genuen finalera zeintzuk sailkatuko ote ziren asmatzeko. Eta sei asmatu ditugu! Bertsolari horiekin jaialdira jende asko inguratuko dela espero dugu.

Zelan ikusten duzu Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala?

Txapelketa oso interesgarria izan da, bukaerara arte intriga egon da-eta. Faborito moduan, bizkaitarrak oso ondo dabilta, baina Andoniri txapela kentzea kosta egingo zaie. Gainontzean, Lujanbio eta Mendiluze ere ondo ibiliko direla uste dut.

Bagare txapelketan aritu zara. Zer moduz?

Aurten laugarren aldiz parte hartu dut eta finalera iritsi naiz. Gustura aritu naiz txapelketan Labaienekin batera.

Zer nahiago, gaiak jartzen aritu ala bertsoetan?

Bada, gai-jartzaile lana ez da nire lana. Gaiak ematea ez da zaila, baina pentsatzea oso lan zaila izaten da. Nahiago dut bertsoetan aritu.

Zer iruditzen zaizu bertsolariak gaiak jartzen aritzea?

Kasuren batean ez zait gaizki iruditzen bertsolaria gaiak jartzen aritzea. Edozelan ere, batek arlo batean erraztasuna edukitzeak ez du esan nahi bestean ere ondo arituko denik. Nor berean hobeto.

Egaña, Lujanbio, Mendiluze, Maia, Elortza eta Iturriaga izango dira bertsoetan Amaia Udal Antzokian

Aurten Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatzen dela-eta bertso saio handia antolatu nahi izan dute AED elkarteak

CONSTRUCCIONES ALKESA, S.L.

GABON ZORIONTSUAK !





TEILATUAK (ESTALKIAK), FATXADAK ETA EGITURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA BIRGAITZEAK
ERAIKUNTZAK
ERA GUZTIETAKO ERAIKUNTZA LANAK
PROMOZIOAK
IGOGAILUAK

Santa Marina 40-42 behe • 20500 ARRASATE
Tel./Faxa: 943 77 13 27 • Mugikorra: 639 82 83 32
alkesa@infonegocio.com



"Itzalpean bizi zirenei
argiak egin die distira"

(Isaias9-1)



arturo alvarez

www.arturo-alvarez.com

Ehune
Apainketa

Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

AMAGARA

Erdiko kalea 54. Arrasate. 943 79 09 09

Laser bidezko depilazio zentro espezializatua

**GABONETAN EDERTASUNA
OPARI EGIZU**

Aurpegi eta gorputz tratamendu bereziak



- *Teknika berritzaileenak terapia mediko-estetikoan*
- *Dietetika eta notrizioa*
- *Estetika tratamenduak*


Makillaje iraunkorra

Solariuma-hidromasajea

Permanentea eta betileen tindatzea

Depilazioa (argiza, elektrikoa...)

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!




FAGOR 
FAGOR INDUSTRIAL

ETXE-LAN S.COOP

BANATZAILE OFIZIALA

- Ostalaritza
- Garbitegia
- Hotz industrialia



Otalora 14 behea. ARRASATE
Tel.: 943 79 12 30
Faxa: 943 71 25 50
satanoar@fagorsat.com

ELKARRIZKETA MIREN URKIOLA HARRI-JASOTZAILEA

“Batzuek galdetzen dute ea barrutik hutsik dauden”

JON BEREZIBAR

Federatuko emakume harri-jasotzaile bakarra dugu Miren Urkiola bolibartarra. Urtarrilean beteko ditu 18 urte eta dagoeneko ia 100 kiloko harriekin ausartzen da. Zaldibarko herri kirol saioan izango dugu kirolari gazte honen erakustaldia Santamasetan.

Esaten dutenez azkenaldian makina bat erakustalditarako deitu dizute.

Bai, halaxe da. Alde batetik neska naizela eta bitxikeria moduan ikusten da, baina lan politak ere egin ditut. Horietako azkena udan izan zen, 81 kiloko harri zilindrikoa jaso nuen.

Nolatan animatu zinen harriak jasotzera?

Betidanik izan naiz kirolzalea eta iaz arte futbolearen eta pelotan ibiltzen nintzen. Orain ia bakarrik harri-jasotzen nabil, serio hartuta, baina orain dela lau urte hasi nintzen zaleztan. Urkiolan izan zen lehen aldia. Familiakoak urtero joaten gara San Antoniotan bertara, eta 13 urterekin herri kirol erakustaldi baten izan nintzen, Zelaik-eta antolatutakoa. Hainbat proba zeuden, eta ni txingak probatzera ausartu nintzen. Horretan nenbilela Zelai gerturatu zitzaidan eta galdetu zidan ea banekien zenbateko pisua karriatu nuen. Nire harriurarako 100 kiloko

Mirenek 13 urte besterik ez zuela, Zelaik ikusi eta animatu egin zuen. Lehen aldian 100 kiloko txinga karriatu zuen.

“Etxean kosta egin zitzaien nire aukera onartzea”

“Hilaren 26an 100eko zilindro zaharrarekin ausartuko naiz”

“Ez naiz erraz desanimatzen den horietakoa”

txinga zen. Handik urtebetera jarri zen harremanetan Zelai nirekin, eta horrela hasi zen dena.

Ez zinen oso goiz hasi? 14 urte besterik ez zenuen-eta.

Berantiarra izan naizela esango nuke nik. Izan ere, mutilak askoz ere arinago hasten dira herri kirolean. Ez nintzen batere goiz hasi, egia esateko.

Ondo moldatzen zara entrenamenduak eta ikasketak tartekatzeke?

Momentuz konpontzen naiz, baina denbora luzea kentzen dit entrenatzeak, negu partean batez ere, orduan aritzen naiz gogorren. Ahalegin fisiko handia egin behar da eta gerria gogortu. Hala ere, nik ez dut larregi sufritu oraindik.

Hilaren 26an Zestoan 100 kiloko zilindroa jaso-



tzeko asmoa daukazu; zure errekorra izango da?

Ehun kiloko zilindro zaharrarekin ausartuko naiz. Orain arte zazpi bat erakustaldi egin ditut 88 kiloko harriarekin, baina entrenatu dagoeneko 100ekoarekin egiten dut. Jendaurrean, baina, lehenengo aldia Zestoakoa da.

Herri kirolean emakumeek dagoeneko presentzia handia daukazue?

Badaude emakumeak aizkolaritzan, txingetan eta, batez ere, sokatiran.

Harri-jasotzean, baina, bi bakarrik gaude eta federatutako bakarra neu naiz. Nik behintzat jarraitzeko asmoa daukat. Askotan eman dit kirol honek: jendea eta lekuak ezagutzea, lagunak egitea... oso gustura nabil.

Emakume gutxi egonda, gainera, komentario matxistak entzungo dira oraindik ere, ala?

Denetarik dago eta mota guztietako pentsaerak daude. Hala ere, matxismo handia dago oraindik. Askok asto-lana dela esaten du, ez dela

neska batentzako eta beste askok “ikusi beharko barruan hutsik ez ote dagoen” komentatzen dute barre egiten. Ni ez naute desanimatzen.

Eta etxeokoe animatuak ematen dizkizute?

Hasieran kosta egin zitzaien. Aitak ez zuen gura hasieran eta bizikletan joan behar izaten nuen entrenatzera, ez ninduen-eta automobilez eraman gura, eta amama ia 3 hilabete egon zen niri berba egin barik. Zaila egiten zaie ulertzea, baina nire aukera da eta oso gustura nabil.

Herri kirolen erakustaldia

Zaldibarren, eguerdian

Desafioak eta erakustaldia

Harri-jasotzaile gazteen sasoia agerian

Erakustaldi bikaina antolatu dute Zaldibarren, kirolari gazteek osatutakoa; eta saioarekin amaitzeko desafioa egingo dute bina-binan. Bost harri-jasotzaile izango ditugu nor baino nor gehiago: Miren Urkiola, Zelai, Aimar, Sarealegi eta Ostolaza. Lehenengo erakustaldiarekin hasiko dira bost harri-jasotzaile gazteak: 200 kiloko errektangeluarra, 80ko zilindroa, 125eko kubikoa eta 100 kiloko bola jaso beharko dituzte. Ondoren hasiko dira desafioak. Saralegik eta Ostolazak egin beharko duten lehen desafio garrantzitsua. Biek hala biek 200 kiloko errektangeluarrari 10 jasoaldi egin beharko dizkiote. Bigarren desafio ikusgarri bat ere egongo da. Zelai eta Aimar gazteek minutu bina egin beharko dute, lehenengo 125 kiloko kubikoarekin eta ondoren 100 kiloko bolari eutsi beharko diote. Harri-jasotzaile gazteak izango dira guztiak eta sasoia frogan ipini beharko dute. Aurkezlea, aizkolarien erakustaldian bezala, Gabisola izango da. Hitzordua: eguerdian Zaldibarko pilotalekuan.



Erdiko kale 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 94



ELKARRIZKETA IÑIGO URRUTIA SANTAMASETAKO HORMA-IRUDIAREN EGILEA

“Oso gaztetzotatik ziur nengoen Arte Ederrak ikasi gura nituela”

IKER BARANDIARAN

Iñigo Urrutia eskoriatzarrak egin du Santamasetako horma-irudia. Urrutiak berak San Juanetako lehiaketa ere irabazi zuen, eta pozik dago Arrasaten bere lanek jaso duten harrerarekin. Gustuko ditu Santamasetako eta baita txerria ere.

Txerriaren zein zati duzu gustuko?

(Barreak) Txorizoa izugarri gustatzen zait.

Txerriatik guztia aprobetxatzen dela uste duzu?

Baietz uste dut. Gainera, ni oso haragizalea naiz.

Gustuko duzu Santamasetako txerria?

Bai, gustuko dut. Ohitura da Santamasetan txerria erakustea. Bestalde, ni normalean Santamasetan gauz ibiltzen naiz eta ordu horretan askotan txerria erretiraturata egoten da. Dena dela, ikusteko aukera edukiz gero, gustuko dut, oso handia eta ikusgarria izaten delako.

Eskoriatzarra zara, baina aspaldian Arrasaten oso harrera ona duzu.

Bai, hala da, San Juanetan ere saria eskuratu nuen, eta harrিতa nago.

Aurtengoa oso horma-irudi bitxia da...

Eskerrik asko. Lagun batek esan zidan lehiaketa antolatu zutela, eta egun bakarrean egin nuen. Ideia oso gustuko nuen, baina denbora faltarengatik ezin izan nuen gehiago garatu. Buruan harategietako irudia neukan, txerria guztiz zatituta, eta horretaz baliatuta, txerriaren barruan azokan egoten diren gauzak sartu ditut.

Gaurkotasuneko gaiak ere sartu dituzu: hegaztien gripea, esaterako.

Bai, ez nengoen ziur azokan hegaztiak egongo zirenen edo ez, eta oilo bat sartu dut horma-iruditik ia irteten, ahoan termometroa daukala. Oiloaren bitartez, horma-irudiari keinu komikoa ematen saiatu naiz, txerriaren marrazkia serioa delako. Horrekin batera, kolore biziak sartu dizkiot: laranjak...

Azkenaldian ibarrek hainbat lagunek egingo dako komikiak argitaratu dituzte. Gustuko dituzu komikiak?

Bai, oso gustuko ditut,

“Oiloarekin, irudiari keinu komikoa eman diot”


“Eskoriatzako Christmas Digitalen saria eskuratu dut”

“Denbora izango banu, komikiren bat egingo nuke”

batez ere euskal mitologiaren gainekoak. Hortaz, gogo handia daukat Jülen Ribas eta Unai Busturiaren lana esku artean izateko. Nik ilustrazioak ere egiten ditut eta komikiak ere egingo nituzke, baina denbora luzea behar da.

Arrasateko gain, aspaldian beste lehiaketaren baten esku hartu duzu?

Oso gutxitan, baina batez ere horren berri izaten ez dudalako. Lehiaketa



egon daudela baneki, sarriago esku hartuko nuke. Bueno, orain dela gutxi Eskoriatzan Christmas Digitalen lehiaketa antolatu zuten eta esku hartu nuen. Ez nuen sariagatik esku hartu, baina ilusioa egiten dit Udalak lan guztiak webgunean ikusgai jartzeara. Orain jakin dut nire lana aukeratu dutela.

Gustuko dituzu Santamasetako?

Bai, oso gustuko. Urtero, aspalditik, Santamasetan eguneko bezperan lagunok afaria egiten dugu eta Arrasatera joaten gara parranda egitera. Urte batzuetan egunez ere ibiltzen gara, eta beste batzuetan ezin da. Aurten lanean jai hartu dut.

Diseinatzaile lan egiten duzu. Zaletasuna ofizio ala ofizioa zaletasun?

Zaletasuna ofizio. Txikitzen asko margotzen nuen, eta hainbat ikastarotan ibiltzen nintzen. Ziur nengoen Arte Ederrak egin gura nituela. Arte Ederrak egin ostean, Bartzelonara jo nuen diseinua ikastera, eta ordutik horretan dihardut.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak



- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:

www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70



www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/joseba	/gutzieder	/ohiak	/pando
/arregi	/BZ-sistemas	/korozabaleta	/okipark	/udalatx
/atai	/gallastegi	/multiopticas	/vitoria	/udalaitz
/azkarate	/garaia			

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com



Gabon & Orientsuak !



=KANPAZAR

Tailerra : Bizkaia etorbidea , z/g . · Tel : 943 79 41 98

Erakusketa : Araba etorbidea , 32 · Tel : 943 79 77 66

Arrasate



CARRASCAL, S.L.

EKUTIO KALEA PAB. 14-15
URIBARRI AUZOA 4
TEL-FAXA: 943 79 01 82

**BERTAN EGINDAKO: SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK**



ELKARRIZKETA ARANTZA OLABE

BASERRITARRA

“Baserritarrok ez gara egun batean erakusteko pailazoak”

U. A.

Arrasateko Enuzketa-Aldekoa baserrikoa da Arantza. Baserrian jaio zen eta baserria du ogibide. Etxeko barazkiak Jakionera eramaten dituzte, baina Santamas eguneko azokan urtero egoten dira barazkiak eta bestelako baserriko produktuak saltzen.

Zer lantzen duzue baserrian?

Barazkiak ditugu gehienbat, denetarikoak. Baina txorizoa, odolosteak eta horrelakoak ere egiten ditugu.

Azokaz azoka ibiltzen zarete saltzen?

Ez. Gure ortuan batzen ditugun barazki gehienak Leintz Gatzagako Jakion enpresara eramaten ditugu. Han baserriko produktuak kontserbatan saltzen dituzte. Baina azoka berezi batzuetara joaten gara.

Duela hilabete inguru, esate baterako, Arrasateko baserritarren azoka egin zuten, eta han egon ginen. Santamasetan ere egongo gara, gainontzeko baserritarrekin batera.

Zer moduzko egoera bizi duzue baserritarrok?

Oraingo baserritarren egoera oso txarra da. Kontsumitzaileek ez dute ikusten zer den baserriko produktua eta ez dute baloratzen. Arrasaten, asteroko azokara, adibidez, jende zaharra joaten da, oso gazte gutxi joaten dira.

Zergatik uste duzue gertatzen dela hori?

Izan daiteke, agian, ordutegia txarra delako, egubakoitz goizean ez baitu jende askorik jai izaten. Baina nik uste dut baserriko produktua baloratzen ez delako egoten dela horren jende gazte gutxi. Erosotasunak ere asko egiten du. Errazagoa da supermerkatuara joan eta ez dakit nongo produktuak erostea, garbi-garbi eginda datozenak. Hemengo baserrietako produktuak, barazkiak, adibidez, garbitu egin behar dira, eta denbora behar duzu horretarako.

Zenbat urte daramatzazue Santamasetako azokan parte hartzen?

Duela 7 bat urte hasi ginen Santamasetako azokara joaten, baina aspalditik nabil baserrian lanean. Baserrian jaio nintzen, eta gustuko dut baserriko lana.

“Denetariko barazkiak saltzen ditugu azoketan”

“Jendeak ez du baserriko produktua baloratzen”

“Egunero saldu behar dugu aurrera egiteko”

Ondo saltzen da Santamasetan?

Bai, saldu ondo egiten da, jende mordoxka ibiltzen da-eta. Baina egun bat bakarrik da eta baserriak aurrera egiteko urteko egun guztietan saldu beharra dago.

Zer saltzen duzue gehien Santamasetan?

Oso barazki gutxi saltzen dugu. Jendea ez da normalean barazkiak erostera joaten. Produktu bereziak saltzen ditugu gehienbat: txorizoa, odolosteak



eta intxaurrak, besteak beste.

Gustuko duzu Santamas eguna?

Baserritarrok ez gara pailazoak egun batean erakusteko. Guk urte guztian bizi behar dugu eta jende-

aren partetik sentsibilitate pixka bat nahi genuke, jendeak gure lana balortzea nahi dugu. Gainontzean, gustuko dut egunean egoten den giroa.

Zer iritzi duzu Udala-

ren eta Santamas Komisi-

siñuaren arteko ikamikaren gainean?
Udalak ezin du ezer inposatu. Atzetik datozen gazteei utzi egin behar zaie gauzak egiten, eta har dezatela haiek gauzak antolatzeko inizatiba.



*Oparirako artikuluak
Larruzko artikuluak
Bitxiak*

Kanpatorpea 4, behea
Arrasate
Tel.: 943 79 12 19



365
Zahartzearen
kontrakoa



Muskuluak erlaxatzearen
kontrako antidotoa



“Gazteek nahi dute baserri bizi, baina ez dago horretarako lurrik”

U.A.

Mondragoetarra da Iker, baina Aramaioko baserri batean bizi da. Ogia egiten du beste batzuekin batera Arrasateko Aranguren baserrian, eta azokan ibiltzen dira saltzen. Santamas eguneko azokan ere egongo dira, baserriko ogi zuri eta biologikoarekin.

Nolatan hasi zinen ogia egiten?

Duela zazpi bat urte hasi nintzen. Arrebarekin batera joan nintzen Aranguren baserrira bizitzera, eta han zeuden batzuek ogia egiten zutela ikusita ikasten hasi nintzen. Proba egiteko hasi nintzen, eta horretan jarraitzen dut oraindik ere. Bi motatako ogiak egiten ditugu: baserriko betiko zuria eta biologikoa.

Zer moduzko lana da ogia egitea?

Lanak ordutegi txarra dauka, baina gustura aritzen naiz.

Zenbat urte daramatzazue Santamasetako azokan parte hartzen?

Orain dela 7 edo 8 urte hasi ginen Santamasetako

ko azokara joaten, baina aspalditik nabil ni baserrian lanean.

Ogia egiteaz gain, baduzue baratzerik?

Bai, badugu ortua eta handik ateratzen ditugu etxerako behar ditugun barazki eta bestelakoak. Fruitu-arbolak ere baditugu, baina etxerako izaten da guztia, ez dugu azoketan saltzen.

Ogia Arrasateko Aranguren baserrian egiten duzue, baina Aramaioko baserri batean bizi zara. Zer egoera bizi du baserriak?

Egoera zaila da. Badago jende gaztea, batez ere kaletarrak, baserrira bizitzera joan eta bertatik bizi nahi dutenak, lantegian aspertuta daudelako-edo. Baina ez dago lurrik ezer lantzeko.

Zein da lur eskasaren arrazoia?

Alde batetik lurren jabeak daude, ez dute lurrik saldu nahi, eta beste alde batetik nekazaritzarako lurrak geroz eta gutxiago daude. Horrenbeste lantegi eta horrenbeste autobide egiten ari dira, lurrik gabe gelditzen ari gara. Ibarrean, adibidez, ikusten da erreka alboko lur onik ez

“Ogi zuria eta biologikoa egiten ditugu Arangurenen”

“Lantegi eta autobideek lurrik gabe utzi gaituzte”

“Jende gutxi etortzen da Azoka plazara erostera”


dagoela. Lur horietan guztietan zerbait eraiki dute.

Zer moduz dago Arrasateko Azoka plaza?

Ahul samar dago azoka. Lanak egin dituzte kanpoan eta badirudi horrek jendea beldurtu duela. Bezeroak galdu erraz egiten dira, baina irabaztea zaila da. Ea lehenengo egoerara itzultzen garen.

Jendeak erosi ohi du Santamasetako azokan?

Bai, esango nuke ondo saltzen dela. Hala ere, iaz lanak zirela-eta Seber Altu-



be aldea apartatuta geratu zen, Garibai aldean ibili baitzen jende gehiena.

Gustatzen zaizu Santamas eguna?

Bai, asko. Lehen ere parte hartzen nuen, txosna jartzen baikenuen AHTren

aurkako asanbladakook. Beti ibili izan naiz zerbaitetan Santamas egunean, eta asko gustatzen zait.

Santamas Komisiñuen eta Udalaren artean dagoen liskarraren gainean zer iritzi duzu?

Udalak Arrasaten dagoen jai herrikoiena eta politena akabatu egin behar du horrela jarraituz gero. Konponbidea lortzekotan utzi egin beharko lioke Udalak Komisiñuei aurrera jarraitzen.

Ondo pasatu Santamasak eta Gabon jai zoriontsuak guztiontzat

ER AÑA
aholkularitza

Jokin Zaitegi 6, behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 83 95
Faxa: 943 79 79 07
Posta-e: erana@aserana.com

Anbotoste sukaldoko begetarianoa

Bazkariak eta afariak



- Eganeko menu berezia
- Arrazioak
- Entrolada buffeta
- Krepak, pizzak...
- Anbotoste platerak
- Pita ogiaz egindako opitartekoak
- Jakiak elaborazio eta salmenis

Ordutegia:

• Bazkariak:

Arteartetik ostirakera
12:45-15:30

Zapatuetan
13:00-16:00

• Arteleheneretan eta donketan itxita

• Afariak:

Ostegunetik larunbatara
20:30-22:45


ERRETRATUZAHARRA

1988. urteko txerriaren zozketa

Txerri eta txerrikiak beti izan ditugu presente Santamasetan, eta urteak atzera eginda ere han ageri zaizkigu. Hala, 1988. urteko txerri zozketaren txartela eta pegatina da hau. 100 pezetaren truke (eta azken datu hau da ordutik hona gehien aldatu dena) saltzen zuten lehen txerriaren zozketarako txartela. Orduan ere jaiak finantzatzeko balio zuen txartelak. Urte batzuetan galtzeko zorian egon zen ospakizun hau herrian, eta orduantxe dirudi hasi zela poliki-poliki berriro ere indarra berreskuratzen. Izan ere, ia ordura arte laneguna zen Santamas eguna, eta azoka ahultzen joan zen. Txistorra, taloak, zanpantzarrak eta herri kirolak, lehen eta orain antzerakoa zen baserriarren azokako eskaintza. Egitarauak oinarrian nahiko antzekoa izaten jarraitzen du urterik urte.

Egitarauari begira, gauzak zertxobait aldatu direla ikus daiteke. Abenduaren 17an, adibidez, Oskorri taldearekin egin zuten erromeria eta goizean Bernardo Atxagaren hitzaldia egon zen. Urte hartan 'Asto bat hypodromoan' eta 'Antonino Apreta' nobelak kaleratu zituen asteasuarrak. Honen harian, garai hartan ere euskal liburu eta disko azoka egiten zen Santamas inguruan, Durangokoaren besteko neurri barik baina jende mordoa biltzen zuena. Azokari dagokionez, makineria erakusketa ere egiten zen

Santamasak'88 arrasate



eta gaur egun jokutzen ez den Santamasetako aizkolari txapelketa Midegia, Olasagasti, Larretxe eta Mendizabalekin.

Garai hartan egitaraua Santo Tomas batzordeak egiten zuen, Koadri- len Komisioaren laguntzarekin, hain

zuzen ere. Batzorde hori auzoetako alkateek, Udalak eta AEDko ordezkariak osatzen zuten. Eta aipatzekoa da, era berean, 1988. urtean kalera baserri- tar jantziarekin irteteko deialdia egin zutela koadrilek, nobedade moduan. Rock kontzertua ere antolatu zuten

koadrilek, baina bertan behera geratu zen, kiroldegian egin behar zutelako eta ekipoa muntatzeko astirik izango ez zutelako kirol ekintzak zirela-eta.

Argazkia: ARRASATE PRESS.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE




MODAYANG

Europa, zapatak eta osagarriak

Maalako Errabala 9.
Tel.: 943 79 50 66.
ARRASATE.

Labeaga 43.
Tel.: 943 53 48 68.
URRETXU.

PUB
HAIZEA



BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



GURKA ileapaindegia
Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Ferrierias 25 - 943 77 13 78
ARRASATE
Bainuetxe 10 - 943 79 70 25
ARETXABALETA

ERRETRATUZAHARRA

Eskuz egindako euskal gazta lehiaketa


Denbora luzea darama Udalak gazta txapelketa antolatzen. 1993. urteko epaimahaia dugu irudiotan, urteroko eskuz egindako Euskal Herriko Gazta lehiaketan. Lehen, azoka plazan bertan egiten zen lehiaketa, irudian ikus daitekeen moduan. Gaur egun, baina, udaletxe oso bilkuren aretoan biltzen dira gaztak eta partaideak, epaimahaiaren erabakiaren zain.

1993. urteari dagokionez, Ruper Ordorikak eman zuen rock kontzertu nagusia hilaren 17an eta hurrengo gauean Lin Ton Taun, EH Sukarra eta Def Con Dos etorri ziren gurera. Abenduaren 21eko gauean, ostera, Joselu Anaiek girotu zuten gaua. Biharamunean egin zuten urtero moduan azoka, abenduaren 22an, fruitu, barazki, hegazti eta untxiekin, hain zuzen ere. Gaur egun egiten dute, baina orduan ez zuten artisauek azokarik egiten, ohitura berriagoa da artisauek ekartzea. Hala ere, ez lehen ez gaur egun ere ganadu azokak ez du hutsik egin, baina garai hartan eskualdeko ganaduekin bakarrik egiten zen ganadu erakusketa.

Herri bazkaria ere egin zuten Zigorrolako kiroldegian, eta ostean Peñagarikano, Mañukorta, Lazkao eta Lopategi izan zituzten bertotan. Saioaren ostean festarekin jarraitu eta gauerdi aldera zozkatu zuten txerria, urtero egiten zen moduan.



Argazkia: ARRASATE PRESS



BEREYA
elektrizitatea



- ALARMAK. TB. SATELITEAK
- ANTENA KOLEKTIBOAK
- PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
- TB ZERBITZU TEKNIKOAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- SOINU INSTALAZIOAK
- KONPONKETA OROKORREAN
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK

ERRETRATUZHARRA

Baserritar eta
maizterren
azoka

Antzina, hileko bigarren eta laugarren asteetako azokako festa nagusia zen Santamasetakoa. Irudietakoa 1915. urteko azoka dugu, baserritarren eta maizterren arteko topaketa zena. Asko idatzi da azoka nagusi horren inguruan, baina ezer gutxi jakin da hastapenen inguruan; orain dela 700 urte ere egiten zela badakigu. Idazkiek esaten dutenez, Gaztela eta Leongo Pedro I.a erregeak eman zion Arrasateko herriari azoka nagusia abenduaren 21ean, 22an eta 23an egiteko agindua. Urte hartan 100 urte ere ez zituen herriak, baina ordurako merkataritza-gune garrantzitsua bilakatuta zegoen.

Historian gertuago etorrita, jatorriz baserritarren jaia izan zela esan daiteke. Egun horietan egiten zioten maizterrari urteko errentaren ordainketa, eta horretarako herrira jaisten ziren baserritarrak, eta blusarik onena jantzita kapoirik ederrenak eman ohi zizkieten maizterrari, eta ondoren bazkaltzera gonbidatu. Baserri giroa kalera ekarriaz, poliki-poliki azoka handitzen joan zen urteen indarrarekin.

Joandako mende erdialdeko testigantzak ere egon badaude. Orduan meza nagusiak eta azokak zeukaten garrantzirik handiena. Eta, nola ez, ez ziren herriko plazan dantzaldiak faltako, hori zen-eta garai hartan bogabogan zegoen musika mota.



Argazkia: ARRASATE PRESS

Hika
OSAGARRIAK

J. Carlos Gerra 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06





tumirada

arrasate optika

Gabon zoriontsuak!



Kontzeziño kalea 6 ARRASATE
Tel.: 943 79 25 98

*Paraje eder
baten kokatua*



*Atsedenerako
behar den
guztiarekin*

*Enpresa
bilerak
egiteko leku
egokia*



Arteaga

Landefxea



*Dasta ezazu
gure menurik
goxoenak*

*Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82*

Z
o
r
i
o
n
a
k
e
t
a
U
r
t
e
b
e
r
r
i
o
n

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2005




GRUPO RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAK

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARETXABAETA



GRUPO RKUZ
SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
FAGOR

Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

GRUPO RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

expert

Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA